

## - Baimen berezia - Kobertsio komisioa %2,5 eko tasa apalean

### A. Hautagarritasun irizpideak

#### 1. Eusko soberakina duzu:

- Erabiltzen dituzun lehengaiak ez direlako lokalki ekoiztuak edo zure hornidura/zerbitzu nagusien erosketak ez dira bertan existitzen ;
- Zure hornitzaile lokalak ez dira eusko sarean ;
- Zure eusko hornitzaileak zure ordainketak limitatzen edo ezeztatzen dituzte.

#### 2. Zure euskoen berrerabilpena ezin hobea dela jukatua da garapen arduradunarekin egina izan den segipen hitzorduan.

- Euskoz eginiko transakzioen puntu bat egina izan da garapen arduradunarekin ;
- Zure euskoen erabilpena ezin hobea da: hornitzaileak euskoz ordaintzen dituzu ;
- Euskoz ordaindu nahi dituzun hornitzaile lokalen izenak eman dizkiozu zure garapen arduradunari ;
- Eusko ordainketak mugatzen edo ezeztatzen dituzten profesionalen izenak eman dizkiozu zure garapen arduradunari ;
- Zure bezeroen ordainketak ez dituzu mugatzen edo ezeztatzen.

#### 3. Zure euskoak lansari moduan berrerabiltzeko ekintza bat plantan ezarri duzu:

- Lansariak baldin badituzu, langileeri zuzenduriko Euskoaren aurkezpen bat plantan ezarri duzu zure garapen arduradunarekin batera ;
- Zuzendari bezala, zure lansariaren parte bat tokiko monetan hartzen duzu (Nota: « partikular » kidetze bat eskainia zaio profesional bakoitzari).

#### 4. Euskarari buruzko desafioa betea izan behar da eta Euskara Poloko arduradunarengandik onartua:

- Euskalduna zira eta bezeroak euskaraz errezibitzen dituzu: desafioa egina da ;
- Ez zira euskalduna: afitxaketa elebiduna plantan ezarri duzu zure komertzio edo enpresan eta euskara poloko arduradunak onartu egin du: desafioa egina da.

## B. Eginbeharreko desmartxak

Hautagarritasun irizpideak betetzen badituzu, eta baimen berezia erabili nahi baduzu, hona hemen hurrengo urratsak:

**1. Zure garapen arduradunarekin hitzordua hartu** baimen berezirako eskaera orria betetzeko. Eskaera orri horretan, eskatua izanen zaizu nola betetzen dituzun irizpideak baimen bereziaren eskatzeko.

Garapen arduradunen kontaktuak:

- Errobi – Hazparneko lurraldea – Hego Lapurdi  
Amaia Baltazar: [amaia@euskalmoneta.org](mailto:amaia@euskalmoneta.org) / 06.64.85.42.34
- Baiona – Angelu – Miarritze  
Martin Orcolaga: [martin@euskalmoneta.org](mailto:martin@euskalmoneta.org) / 07.64.48.18.21
- Garazi Baigorri – Amikuze – Iholdy-Oztibarre – Xiberoa – Bidaxune  
Mélanie Verdier: [melanie@euskalmoneta.org](mailto:melanie@euskalmoneta.org) / 06.58.26.75.90

**2. Eskaeraren aztertzea.** Eskaera orria igorri ondoren, aztertua izanen da onartzeko ala ez Onespen Batzordearengandik, hilabetero biltzen dena.

**3. Onarpena edo ezeztapena.** Onespen batzordearen ondotik, zure garapen arduraduna zurekin harremanetan sartuko da zure eskaera onartua izan den ala ez esateko.

## C. Informazio garrantzitsuak

### 1. Baimen bereziaren iraupena

Baimen bereziak urte bateko luzaera du. Urte baten buruan, egiaztapen hitzordu berri bat egingen da garapen arduradunarekin. Urtean zehar irizpideak ez badira gehiago beteak, baimen berezia ezeztatua izanen da.

Baimen berezi berri hau 2027 urtea arte esperimentatuko da, eta 2028-2032 plan estrategiko berriaren koadroan berrikusia izanen da.

### 2. Baimen berezien metatzea debekatua

Kobertsio komisioa %2,5 eko tasa apalean ukaiteko baimen berezia ukaiteak ordainketen mugatzearen baimen bereziaren amaiera ondorioztatzen du.